AMAIERA HITZALDIA

EUSKARA ETA MEDIKUNTZA

GOTI, J.L.

I. EUSKARA NIK EZAGUTU NUEN OSPITALEAN

Sarrera:

Patologia Orokorreko ikasle, 20 urte bete berri, duela 48 urte, Basurtun hasi nuen neure hezkuntza klinikoa, udako oporrak aprobetxatuz.

Goizeko 9etan, 8 zenbakidun tranbian, zentimo batzuengatik, gaisoen familiartekoz, gaisoz, lankidez eta hainbat soldaduz inguraturik joaten nintzen Basurtura. Guk denok baino goiztarrago, Garcia Alonso Doktorea, sasoi hartan Kirurgia Orrokorreko zerbitzuaren buru, goizeko 7etan joaten zen tranbia berean Ospitalean bere lana hastera eta, bera bere pabilioira zihoala, tranbiak "trolearen" norabidea aldatzen zuen Atxurira itzultzeko harantzean erabilitako tranbia-bide edo errailetatik.

Ospitale hura gaur Gurutzeta gertatzen zaigun bezain antigualekoa, edo modernoa, zen.

Gaurregun adina gaiso ingresaturi eskaintzen zion zainketa, zeren 1939rako 850 ohetik gora, 1.000ra inguratzen, erabiltzen bait ziren.

Ospitalea Karitate Junta batek eraenduta zegoen, zeina, orduan nonnahi gogorazten zen moduan, Subiranoa zen, subiranotasun hau ihardespen ez helegite-biderik gabe erabiltzen zuelarik, egoki guztian Mediku zuzendariak eta administrariak, bulegari talde txiki batekin, zeramaten edo zuzentzen zuten Ospitalea.

Hogei bat mediku zebiltzan gelaburu moduan. Ongi gogoratzen ditut: Landin, García Alonso, Saldaña, M. Salaberri, J. Salaberri, Laguna, García Hormaetxe, Landa, Pérez Irezabal, Rey Baltar, Díaz Enparanza, Pinies, Clemente Romeo, Oroz, Herrazu, Toledo, Posse, Obregón eta Azaola.

Atxuriko Ospitalean lanegindakoak ziren Díaz Enparanza, Landin, Azaola eta Laguna.

Basurtutik iraitziak izan ziren, 1936ko lehenengo Euskal Unibertsitateko Medikuntza Fakultatearen sorreran partehartzeagatik egindako espediente politikoak aitzaki, Juan Viar jauna, Julián Guimón jauna, Jon Arrospide jauna, Justo Gárate jauna, Arrese jauna e.a, e.a. Eurotariko batek ere ez zuen berriro Basurtun hankarik ipini. Hunkimenduz gogoratzen ditut denak.

Goizeko 9,30-10ak aldera hasten ziren lanean eta gaisoak osatzeari ekiten zioten jo ta ke. Ezer gutxi argitaratzen zuten.

Ira
lanean,
bakarri
tzak, a

Euskara

In
Badaki
ren 27

Ir
zioa, o
tasunet

B
tzen ze
hiago
soen i

G
pretari
gundu
leundu

O
nak iz
tan, be
egon e
zionea

E
ziren.

P
bidezk
gure a

E
estudi
kar ha
edo n

E
ezta g
esku

I

I
desira
agian,
tuta b
Unibe
bait z

Iraitziek, zituzten estura eta oztopo guztiekin ere, gehiago egin zieten argitaltzelanean, eta Garatek Basurtuko staf guztiak baino lan gehiago argitaratu zuen berak bakarrik. Esan daiteke berau izan zela zorigaiztoko gatazka zibiliaren inpaktu bortitzak, autore bezala, eraginik egin ez zion bakarra.

Euskara Basurtun:

Inoiz ez nion euskaraz esaldi battxo ere entzun Basurtuko buruetako bati ere. Badakit, jakin, baten batek euskaraz haurtzarotik zekiela. Gaur Basurtu lanean ari diren 273 medikuetarik 15ek menderatzen dute osobetean euskara.

Iraitziekin sarri hitzegin izan zuen euskaraz. Euren iraizpena, edo defenestrazioa, odol-huste bat izan zen Basurturako, injustiziari txirotze intelektuala eta Elebitasunetik Elebakartasunera pasatzea gehitu ziolarik.

Basurtu diglosiadun Ospitalea zen orduan. Medikuntz lana erdera hutsean burutzen zen eta gaixoen portzentaia altu bat euskaldun elebakarra zen. % 50a baino gehiago Jaurerrikoa zen eta, 60. -eko hamarkadan egin nituen ikerketen arabera, gaisoen ia % 50ak euskarak hitzegiten zuen.

Gutxi batzu, bitartekaritzan ibiltzen ginen, itzultzaile, edo hobeto esanda, interpretari lana eginez, eta honek poz handia ematen zigun eta guk gaisoei gainditzen lagundu uste genuen edo saiatzen ginen injustiziak eragindako tristura sentimedua leundu ere bai.

Orduan Basurtura zetozen gaisoak, dena delako hizkuntz ezagupen eta hobespenak izanda ere, ez zuten aukerabide handirik, eta euren egoera klinikoa, serioa sarritan, benatazko behartsu bati zegokiona zela gertatzen zen, bere herrian, bere ohean egon eta inork ere ulertzen ez zionean kondatzen ari zena, eta inori ere ezin azaldu zionean zer gertatzen zitzaion.

Elkarrizketa ezinezko zen eta mediku-gaisoaren arteko harremanak oso pobreak ziren. (1)

Psikoterapia ezinezkoa zen, pertsuatsioak ez zuen inondiko biderik, eta hitzaren bidezko sendakuntza, Lainek hain maite zuena, (6) bururaezina zen orduko garaitako gure arau teraupetikoetan inondiko baliabide ansiolitikorik ez zegoen mundu hartan.

Ez dut sekula ahaztuko, eta nire antzera ez zuten ahaztuko ezta Basurtun ikasi, estudiatu, lanegin eta joranez ahalegintzen ginen guztiek ere, gaixo euskaldun elebakar haien bakartate, ardura eta estura-sentsatzioa, sarritan, guk euskaraz agurtzean edo medikuak euskarekiko zeukan jarrera sumatzean, aldatzen ikusi genituelarik.

Ez nintzen ni, zorionez, lan hau egin nuen, oso gustora egin ere, ikasle bakarra, ezta geroago barruko mediku bakarra ere, baina, egia esan, hain ginen gutxi, ezen esku bakarreko atzamarrak aski ziren gu denok kontatzeko.

Lainek ondo dioenez, "bestearen" lekuan jarri beharra dago drama ulertzeko.

Dena interpreta daiteke Gerra Zibilaren ondorien klabean, edo hain gogo biziz desiraturiko Euskal Unibertsitatearen aldeko Kultur et Hizkuntz borrokarenean agian, gerrarteko aldian, Euskal Ikerketetako Elkartea buru zela, gure herrian plazaratuta bait zegoen burruka hau eta Bilbon, eta zehazkiago Basurtuko Ospitalean, Euskal Unibertsitateari hasiera emateko behar zen Medikuntza Fakultaterako oinarri bezala, bait zeukan eskenategirik nabarmena.

Mende erditik gora igaro beharra izan da egoera normaltasunera itzul dadin eta Medikuntza Fakultateak, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoregoak, Medikuntz Euskaradun irakasle-lanpostuetarako deialdia egin dezan, 1936ko abenduan bezala.

Ospitalea

Basurtuko Ospitaleak orduan oso-osoan zeuzkan Epalzak burututiko eta Ospitale bikoitz moduan, bata orokorra eta bestea gaisotasun infekziosoena, ideiaturiko proiektuaren eraikinak eta taiua.

Eraikuntza biok oso ezberdinak ziren. Ospitale Orokorreko pabilioak oraintxe ezagutzen ditugun bezalaxe zeuden eta gaisotasun infekziosoetakoak Iparraldera zegoen orubean kokatuta eta eraikin isolatuetan eratuta zeuden, bestelako materialez eginak, txikiagoak, baina begibistako edertasunekoak eta ez funtzionaltasun gabekoak zirelarik.

Tuberkulosoen pabilioak, terraza zabal irekiz eta Hegoaldera orientaturiko hamakaz hornitua, aire zabalean eta eguzki-orduak aprobetxatuz atsedean egoteko aukera ematen zien gaisoei, orduan funtzekotzat jotzen zen arma teraupetikoa zelarik hau.

Ospitalean 4 sekzio bereizten ziren argi eta garbiro: bat Medikuntza Orokor eta Eritasun Infekziosoena; beste bat Kirurgiakoa hiru klinikarekin; hirugarrena Espezialitateetakoa, mediku-espezialitateak zein mediku-kirurgiakoak barnesartuz, guztira 9 zerbitzu zituena, eta laugarrena Zerbitzu Laguntzaileetakoa, hala nola laborategiak, farmaziak, Izpiak, e.a.

Gelak irekiak ziren, 20-25na gaisorentzakoak, gehi bat-bi banako gela eta jan —edo batzar— gela bat.

Inor ezin kexatu zen oheen edo bakoitzarentzako mahaitxoen higiene-egoeraz, ezta egonaldiak edo gaisoekiko atentzioak suposatzen zuen edozeren garbitasun ezaz. Jatekoa ez zen bikaina baina bai zaindua. Inoiz ez zen elikadura-toxikaziorik gertazen.

Aireztapen kontua hertsitasunez eramaten zen, egun batzutan Hegoaldeko leihoak zabaltzen ziren eta hurrengo egunean Iparraldekoak.

Gaisoek ohean erretzen zuten.

Behar adina monja zeuden, karitateko Ahizpak, eta efikaziaz lanegiten zuten.

Arratsaldeko 5etan Errosarioa errezatzen zen, beti erdaraz, nahiz eta hiru kaperautarik bik gu denokin euskaraz egiten zuten. Euskaldunen arazo liguistikoak hobeto interpretatzen laguntzen zuten.

Medikuntz Zerbitzuek erradioskopioak egin ahal izateko X Izpigailu bat zuten. Aparailuok, babesik gabekoak, anodo finkokoak eta baskulaketa zailekoak ziren.

X Izpi-Zerbitzuak kalitatezko aparailuak zituen, nahiz eta ezerosoak eta agian zerbait zaharkituak izan, zeren, ia ziur, gerra zibila baino lehenagoak bait ziren. Beren piezek gaur benetako aberastasuna izango lukete medikuntzaren historiako edo teknologiako euskal museo batetan.

Kirofano-pabilioiak 3-4 ebakuntza-gela zituen gutzienez, baina ez zegoen zainketa intentsiboen unitaterik.

Odol-sartzeak urriak eta arriskutsuak ziren oraindik, eta orobat fluidoterapia ere.

Ebakuntza egin berri, gaisoak gurpilezko ohatiletan eramaten ziren kirurgi-pabilioietara, kanpotik zehar.

Anestesia, Ombredane-gailuarekin egiten zuen zaingopraktikariak, larrialdietan behintzat.

Zerbitzu-buruetariko batek, kirurgilari handia bera, egia esan, Kirurgia Onkologikoari buruzko bere argitarapen batetan esaten zuen Ombredanek ematen zuela anestesia ideala.

Tisiologiako Zerbitzu-buruak bular-kirurgia, errealitatean tisiologo kirurgia, leku-anestesiaz egindako torakoplastiekin praktikatzen zuen, frenizektomien moduan.

Ohizko kolapsoterapia pneumotorax-gailuarekin egiten zen, Revillla Pabilioiko arma terapeutiko paregabea eta behar bada, gaiso kutsagarriak osatzen gehien partehartu zuen tresna harekin. Orduan esan ziteeken tuberkuloso irekiarentzako ez zegoela penumotorax ondo egina bezalakorik.

Farmazia, ederra eta ongi hornitua zen. Ez ziren falta printzipio aktiboak eta maisutasunezko formulak, arau bait ziren. Banaketa, hobezina zen. Museoa zirudien.

Kaperaren pabilioia eta mojen egoitza beti egon dira ondo zainduta, txukuntasunez esango genuke.

Gogora ekarri beharra dago hemen arreba Pastor, instituzio oso bat San Pelayon, Sor Pilar Gandariasen, Sor Gloria Jadon eta guztien gainetik eta lehenengo Sor Blanka, benetako Nagusia.

Hutsguneak zabalak ziren, nahiko ondo zainduak, baina lorategi-gune gutxi zituen eta zuhaitzetan txiroa zen.

Basurtu beti izan da erakarkor arkitektura eta hiri-eraikin bezala, Atxuriko Ospitalea zen eta den moduan.

Basurtu hasi berri zeneko gaisoak Bilbotik zetozen gehienak (% 60a), aipatzen ari garen sasoian bizkaitarrak Bilbotarrak baino zertxobait gehiago ziren.

Urteko kopurua 7tik 8.000 gaixora bitartean zebilen. Egunero 20 bat sartzen ziren. Altak eta bajak orekan zebiltzan. Ez zegoen itxaron-zerrendarik, tuberkulosetan izan ezik. Gaisoen % 10ak eritasun infekziosoak zituen.

Gaisoen guztizkotik erdia inguru medikuntz zerbitzuetan zaintzen zen.

Hilkortasuna, batezbeste, % 7a baino zertxobait handiagoa zen eta eritasun infekziosoen hilkortasuna % 18koa.

Batezbesteko adina zen oso handia, honekin batera doan laukian ikus daitekeenez.

Zahartzaroa ez zen arazoa, zaharreriagatiko erotu-kopurua urria zen eta tumorazio gaiztoak ez ziren sarri ematen.

Obesitate gutxi ematen zen, ia mundu guztia zegoen argal, deselikatu banakaren bat eta noiz behinka gosetiren bat ikusten genuen.

Euren ekonomi statusa, apala zen beste ezer baino gehiago, nahiz eta klase ertainekoak falta ez, ez-eta egiazko txiroak eta eskale banakaren bat ere.

Euren jarrera, gaiso zirenez, oso positiboa zen, laguntzekoa, arbuio, mesfidantza eta hiperkritika kasuak urriak zirelarik. Salan beti zegoen bateren bat adierazteko benetako arazoak zituena, baserrietako nekazariak batez ere.

Euren portaerak asko motibatzen zuen mediku-saila eta horrek bultzatzen zuen geure bokazioari kasu egin eta lan gau eta egun egitea hainbat aldiz, soldatarik, aseguru rik, ez saririk jaso gabe. Mirak zoriontsu ginen eta geure lanean garatuak sentitzen ginen.

Gandariaseko Barne Medikuntz Zerbitzuan, astean 2-3 autopsia egiten ziren. Senideek arratsaldetan laguntzen zien gaisoei eta heriotze-kasuetan autopsia egiteak ez zuen arazorik sortzen.

Historia klinikoak eta asistentzi-grafikoak zehazki eramaten eta artxibatzen ziren.

Gaiso eta eguneko batezbesteko kostua 20 pezetakoa zen eta horren zati bat gaisoek eurek emanten zuten ahalbideen arabera.

Gaisotasunak

Gure arazoak, honako hauek ziren: bihotz, gibel, giltzurrun, arnas, gorotz,... eta diabete deskonpentsazioak, eta horien artean, pneumoniak, bronkopneumoniak, abszesuak, biriketako zorne-jarioak, pleuresiak, enpiemak, karditis septiko eta erreumadunak, bikortadurak, barreiadura eta meningitis tuberkulosoak, meningitis pneumokozikoak eta meningokozikoak, kolezistitisak, kolangitisak, hepatitisak, lixeriketahermorragiak, ultzera-ernamuinak, enteritisak, enterokolitisak, ultzeradun kolitisak, e.a.

Lehen esan dudan bezala, prozesu neoplasikoek ez zuten garrantzizko portzentaiarik, ez gutxiagorik ere.

Esperientzia handia geneukan sukar tifoideoak zaintzen enterorragiagatiko hilkortasunagatik, tifus exentematikoaren kasu batzu, tetanos bateren bat eta nafarrerikasu 1 gutxienez edo agian 2.

Sarri suertatzen zen, arnasestu edo disnea krisi gogorrak zituztelako presazko trakeotomia egin beharra zuten difterikoei Sorospen-Gelan edo Larrialdietan asistentzia eman beharra, eta orobat kukutxeztul, elgorri eta eskarlatina kasuei ere eta poliomelitis banakaren bati edo entzefalitis, mielitis eta paludismoren bati ere.

Urte haietan eta konkretuki 1946an, tratatu ziren: 443 tuberkuloso, eurotarik 101 hil zirelarik; 161 tifiko 10 hil zirearik; 18 difteriko 3 heriotzarekin eta 22 meningitis kasu 1 hil zelarik.

Kongresuak, eritasun infekto-kutsagarrien problema abordatzen duenez, nabarmendu behar du urte haietako arazo nagusia tuberkulosia zela, % 22ko hilkortasuna zeukalarik gizonezko gazteengan, gaisotasunaren forma diferenteek, hots, kabitatuek, exudarazleek, barreiatzekoek, e.a. eraginda, kakesian batzuetan eta hemoptisian bestetzuetan bukatzen zirelarik, denok hunkituta utziz.

Aparteko kapitulua eginten zuen sifiliak, gonorrea bezala ohizko kontua zelarik gure esperientzian.

Ez zen medikurik luesaren sintomatologia bariatuaren berri ez zuenik eta nekez aurki zitekeen honetan errakuntzarik izan gabeko klinikaririk.

Medikuari itsatsiriko kutsapen kasuak gutxi ziren, baina begibistakoak. Zenbait urte lehenago, Alvarez Ipenza Doktorea kirurgi-ziztada batek eragindako sepsiaz hil zen.

Medikamenduak

Zerbitzuburuak agintzen zuen, eguneroko bisitan, gaiso bakoitzaren medikazioa, eta praktikariak eta pertsonal laguntzaileak arauteri koadernoan anotatzen zuten.

Gure medikamendu nagusiak, efizkazia kontutan izanda, ziren: Salirgan, Nouvrit, Piramidon, salizilatoak, Miokombin, Efedrina, Neosalbarsan, Atropina, Insulina, taninoak eta Sulfatiazol edo Prontosil...

Luminal, alkalinoak, kolagogoak, bismuto-gatzak, kaltzioa, estraktu hepatikoa, burdina, e.a.

Dolantina, Morfina eta Patopona, beharrezko zenean erabiltzen ziren.

Urte horietan heldu zen botikategira Irgapirina, eta Sulfatiozolak Prontosila ordeztu zuen eta geroago Penizilina, Estreptomizina, Kloromizetina, e.a. etorriko ziren.

Baina urte haietak medikamendu nagusia, nik neure MIR hezkuntza bukatua nuenekoa, eguneroko prentsan, tuberkolosoak 48 ordu barruan apiretiko uzten omen zituen droga bezala iragarri zena, iragazitakoak egun bat edo bian suntsiarazten omen zuena, leizeak behingoak ixten omen zituena, Rimfon-a izan zen, izen horixe eman bait zioten informabide publikoek.

Desagertu egin ziren bikotadurak, meningitis tuberkulosoak, hemoptisiak, kakexiak eta itxi egin ziren Tuberkulosikontrako Zentru handiak. Izen handiko medikuntz espezialitate baten desagerpenaren aurren geunden: TISIOLOGIA.

Revilla irribarreka hasi zen, osasun altak ematen eta ohe libreak izaten eta Landa Doktoreak ez zeukan harat-honat ibili beharrik neumotorak, frenikotomiak eta torakoplastiak egiten.

Garai berri bat hasten zen eritasun kutsagarrietan.

Ez dut amaitu nahi kapitulu hau Pinies Doktoreari, nire maisuari, bere ardurak, ulerkortasuna, xera eta irakaskuntz nahiz asistentzi lanerako bere eskaintza osoa eskertu gabe.

Nire barren-barreneko gomuta baita ere Enrique de Miguel Dk. jaunari eta nire mediku bidean hainbat lagundu zidatenei.

Ondorioak

Europako 40ko hamarkadan gutxi da imita daitekenik. Garaileak eta garaituak, gailenak eta zanpatuak elkarren bestena eta nonnahi.

Gure ingurua, eta Basurtu konkretuki, ez zitekeen izan salbuespen bat. Gualdua zuen, edo iraitzia, bere mediku-sailetik sektore aurrelariena. Medikuntz-Euskara erreibindikatzen zuen medikuen kongresu batetan, mediku elebidunen klaustro batetik elebakartasun gogorrenera pasatu zela seinalatu behar da.

Medikuntz Euskaraz, 1936ko Mekikuntz Fakultatean diziplina bezala irakatsi zenak, gizaldi erdi baino gehiago egon behar izan du itxarote, duela aste gutxi agertu arte berriro asignatura bezala, errektorego talde berriari esker. Eskerrik asko Goiriena jauna.

Asistentzi eta ongile-lan handia bete zuen Basurtuk, hala ere, eta dena esan behar da, gaurkoa baino gutxiagoa ez zen ohe kopuruarekin eta okupazio-indeze aparteko batekin. Gizarte-izaerako eritasun infekto-kutsagarriei dagokienez, eragin gogorra zuten erikortasunean eta batez ere garai haietako hilkortasunean.

Tuberkulosi Pabiloian urtero sartzen zen 4 gizonezkotik bat hil egiten zen.

Esan beharra dago, eta atseginez, Basurtu izan zela, Valdecilla-rekin, aurretiko meritu-lehiaketaz MIR erregimeneko espezialisten prestakuntzari hasiera eman ziona, 25 urte geroago jarraitu ziolarik Asegurantza Sozialak.

II. EUSKARA EGINKARITZA PROFESIONALEAN

MIR prestakuntza 1950eko uztailaren 15ean bukatu nuelarik Basurtun, nire eginkaritza profesionalari eman nion hasiera, gaurregun ere horretan jarraituz.

Benefizentziako, gizarte-asegurantza estaleko, gizarte-asegurantza pribatu edo Igualatorioko eta pribatu soileko bezala azaltzen zitzaigun orduan jendea.

Nire kontsultategian gizarte-asegurantza estatalekoak hartzen nituen, baita Igualatoriokoak edo ezein ezaugarririk gabeko pribatuak.

Elebakartasun eraginkorreko gizarte-egoera batetan, etikazko eta afektuzko eta justizia soziolinguistikozko arrazoiak medio, euskararen eta gaztelaniaren erabilerari eman nion bide berizkuntzarik gabe nire mediku-gaiso harremanean.

Gaiso gehienak erdaraz azaltzen ziren, baina gutxietsiezinezko kopuru batek, euren azalpen anamnesikoarekin ezeroso edo deskonforme aurkitzen zirenek batipat, euskarara jotzen zuten, hobetu egiten zelarik horrela asko gure harreman afektiboa eta teknikoa.

Nirekin lanean ari diren erizain eta pertsonal laguntzailearekin, eta etxean ere, euskara eta gaztelera egin izan dugu eraberean.

Lanean hasi eta urte batzu geroago ikerketa bat prestatu eta burutu nuen, Doktore Tesirako oinarri izan zena, Euskaldunen Odol Motari buruz.

60-64 bitarteko urte haietan egiaztatu nuenez, kotsultategira etorri zitzaizkidan 900 gaiso azarean aukeratutakoren artean 384ek menperatzen zuten euskara, nik ezagutzen nuen ospitalera duela 20 urte zetozenetan ematen zen portzentaia baino txikiagoa ez delarik seguraski.

Euskaldunetarik % 28a RH negatiboduna zen, eta Euskal Herri osoko herri eta hiri ezberdinetatik zetozkidan kontsultategira.

Askatusuna eta aukera librea erabiliz eta erabaki pertsonalak gidaturik zetozen eta datoz kontsultategira.

Lehenengo egunetik bertatik artxibatzen dira, erabat norbanakaturik, historia klinikoa, erradiografiak, analisiak, tratamendu-jarraibideak, postatrukea eta beste datu guztiak. Ez dut historia kliniko bat era desegin.

Gaur arte 45.200 gaiso asistu ditut 42 urtetan eta 20.000tik ziren, nire ikesten arabera, euskaraz zekitenak. Asistentzi kopurua 200.000 bisitara irits daiteke eta 100.000tik gora izango dira hizkutza bietara edo gure hizkuntzan bakarrik egindako solasaldiak.

Gaisotasun infekto-kutsagarriak gutxienak, dira, patologia psiko-somatikoa, aldiz, altua, eta izaera poligenikozko edo etiologoia ez-ziurreko prozesuak kopuru garrantzitsu batez ematen dira.

Gero eta handiagoa da euren borondatez euskaraz bakarrik egiten dutenen portzentaia eta bazterrera ezinezko errealitatea da berau.

Patologian emandako aldaketa nabaria eta diskutiezina izan bada urteotan, nire urteetan zehar, euskarari buruzko gaisoen jarrera hain da dudagabekoa eta positiboa, non azertu handitzat daukadan Mediku Euskaldunen Lehen Kongresu hau, luzaroago ez zezakeena itxaron.

III. EUSKARA, IHARDUERA AKADEMIKOAN ETA UNIBERTSITAL

Irakaskuntzan

Bilboko Medikuntz Zientzien Akademi, ia ehun urtedun instituzioa, osasun klaseen, bilgune eta graduatuondokoen hezkuntza jarraikiaren lehenbiziko zentrua, eta Gaceta Médica bere aldiskaria, estatuko mediku-aldizkarietan dekanoa, ez ziren sekula ezagutu euskararekiko sentikizunagatik, argi eta garbi adierazten duelarik honek klase profesionalen eta konkretuki Bilboko medikuen jarrera soziologiko eta kulturala.

Gaceta Médica-n argitarturiko testuen berrikuspenean, 80 zenbakitik gorakoan, medearen hasiera (1903an) bakarrik agertzen da esaldi bat gure hizkuntzaz, lagun batek besteari zuzentzen dion ahalpaldi satiriko bat.

Sentikorturik, bultzaturik eta hunkiturik, nahi bada, nire bilakaeragatik beragatik agian, oso aktiboki esku hartu nuen Euskal Antropologiaren I Astearen antolaketa lanean, Akademiaren 75.urtemuga dela eta burutu zen hartan. Ez dut inoiz ahaztuko Barandiaran, Mitxelena, Lekuona, Eskudero, Caro Baroja, Celaya, Mañarikua eta bestearen partaidetza, neure ideietan bermatu nindutena.

Gerorantz Akademia presiditu nuenean, saiatu nintzen, laguntzen ninduen Juntarekin batera, Euskarari ateak zabaltzen instituzio honetan, Euskara-erdarazko Nomenclator bat prestatu zelarik horretarako eta hiztegi bat geroago, F. Iturriaga, Uriarte Dk., Alberdi, Ondarrak eta abarrek burutu zutena.

Gerotxoago literatur lehiaketa elebidunak antolatu genituen eta laburpenak agertzen hasi ziren Aldizkarian, eta Nahainguru bat egitera ausartu ginen EUSKARA ASISTENTZI MEDIZINAN ETA MEDIKUNTZ ZIENTZIETAN. Brouard, Viteri, Ocamica, Candina, Muguruza, Goenak eta nik neuk moderatzaile gisa hartu genuen

parte. Erderaz eta Euskaraz egin genuen berba. Adoretsu sentitu ginen denbora guztian. Akademiaren ateak ireki eta hari dimentsio berri bat ematen lagundu genion sentimendua geneukan.

Uste genuen berehala gainditu beharrekoa zela medikuntz-Euskara eginkaritza profesionalerako soilik erabiltzearen ideia, hots, mediku-gaisoaren artean osoago, eraginkorrago, gizakorrago, garaitiarrago, hitz batez egokiago eta gaurkoago zitekeen harremanerako, eta aurrera egin behar zela euskara medikuntz zientziaren bitarteko gisa ere erabiltzea pentsatuz. Proposatzen genuen orduan (1974ean) jauzi handi bat ematen hasi behar genuela, gaur hemen gauzatua azaltzen dena, gure ekarpena edo zientzi sorkuntza euskara ikasiz, pentsatuz, mintzatuz eta idatziz. (10)

Beti onartu nuen helduko zela egun bat, eta ez urrunean beharbada, medikukongresu monografiko bat burutu ahal izango genuena geure hizkuntzaz, Eritasun Infekzioso honen kasuan gertatzen den bezala.

UNIBERTSITAL IRAKASKUNTZAN orain dela 15 urte sartu nintzen, baina ikasleekiko lehen harreman zuzena 1979an izan nuen, neure burua eskaini nuenean Euskal Herri-Medikuntza eta Euskal Medikuntza ikasteko nahi zutenekin.

20 ikaslez osoturiko talde bikain bat batu zitzaidan gure lanari ekiteko. Saio haren ondorioz izan zen Doktoretza Ikastaroak antolatu genituena, Barandiaran, Caro Baroja, Granjel, Barriola eta gainerakoak bezalako pertsonaiekin, eta handik lasterra pasatu ginena MEDIKUNTZA HISTORIAREN MINTEGIA eta geroago EUSKAL MUSEO HISTORIKO-MEDIKOA sortzera.

Mintegiaren 100 ekitaldi baino gehiago haietatik igaro eta bertan partehartu zuten pertsonaien artean Leizaola, Villasante, Charritton, Satrustegi, Urquijo, Barandiaran, Monreal, Celaya, Barriola, Ajuriaguerra, UZEIko taldekideak etabar ziren, programa zientifiko-mediko zabal bat garatu genuelarik Euskaraz batzutan eta erdaraz bestetan. (15)

Ez zen ekitaldi bakar bat ere izan, bere sarreran, aurkezpenean edo laburpenean gure hizkuntza erabili gabekorik.

Uste dugu apalki Euskararen aurreramendu eta garapenerako laguntzan parte hartu izan dugula, bai gure lan profesionalean baita Akademian eta zientzi, irakaskuntz eta ikerketa dimentsion ere.

Zorionak eman eta poztu egiten gara ospitale-mediku talde batek hasi duelako eta iraun dirauelako Goiriena Errektoreak bultzatu nahi duen bide horretatik, medikuntz Euskara lanpostuak eskainiz, lehiaketa publikoz, gure Unibertsitatean.

A

Abalia, I.,
Abasolo, J
Agirrebeng
Aguinaco,
Aguirre, A
Aguirregor
Aizpuru, M
Alayo, A.,
Aldamiz-E
Alonso, R
Alvarez, M
Amezua, I
Antolín, P
Apellaniz,
Aranburu,
Aramendi,
Arana, A.,
Arilla, M.C
Arregui, M
Arriaga, L
Arriega, J.
Arrizabala
Arrizabala
Arruza, J.,
Artetxe, J.
Astigarraga
Audikana,
Ayensa, C
Azkunaga,
Azpiazu, A

B

Barandiará
Barrenetxe